

# txintxarri 30 urte!

## Iritsi dira Gabonak!

San Tomas azokarekin egin diete ongiatorria herritarrek Eguberriei eta neguari; 24an Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira / 4-5



# Ges aseguruak



**Eguberri on!**

*Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia*

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!






**Ttakun**

Kultur Elkartea

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

**Euskara eta kultura bidelagun!**



**Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian**  
**On-line egiteko: [www.txintxarri.eus/bazkidetu](http://www.txintxarri.eus/bazkidetu)**

**Izen-abizenak:** \_\_\_\_\_

**NAN:** \_\_\_\_\_ **Jaiotze data:** \_\_\_\_\_


**Helbidea:** \_\_\_\_\_ **Herria:** \_\_\_\_\_

**Telefonoak:** \_\_\_\_\_

**e-maila:** \_\_\_\_\_

**Kontu korrontea (IBAN):** \_\_\_\_\_

*Data eta Sinadura*



Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez

*Bidali postaz edo utzi bulegoan:*

**Geltoki kalea, 4 behea 20160 LASARTE-ORIA**

*On-line egiteko:*

**[www.txintxarri.eus/bazkidetu](http://www.txintxarri.eus/bazkidetu)**

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideez irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugaltze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz [datubabesa@ttakun.eus](mailto:datubabesa@ttakun.eus) helbidera.

**Informazioa eta bazkideak: [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) • Geltoki kalea, 4 Lasarte-Oria • 943-37 14 48**





# Olentzero eta Mari Domingirentzat

Olentzero eta Mari Domingi maiteak:

Beste ezeren aurretik barkamena eskatu behar diezueg eskutitz polit eta txukun bat idazteko nahikoa tarte hartu ezinik ibili garelako, izan ere, ez dakizue zer-nolako lanak ematen dituen 32 orriko aldizkari berezi bat prestatzeak! Izerdiak izerdi eta komeriak komeria, aurrera atera dugu aurtengoa ere. 2023a itxi aurretik, urte zoro eta aldi berean eder honen errepaso izango den urtekaria argitaratuko dugu hilaren 29an. Aste honetakoarekin nahikoa ez, eta beste 32 orriko agerkari bat!

Zergatik izan den urte zoroa, eta zergatik izan den ederra? Ba begira, beste gauza batzuen artean, Lasarte-Oriako herri aldizkari honek 30 urte bete zituelako urriaren 1ean. Erraz esaten da! Egitasmo honek hiru hamarkada bete baditu izan da erredakzio kazetari, publizista, banatzaile, Ttakun Kultur Elkarte lankide, kolaboratzaile, laguntzaile, herri-

tar, elkarte, eragile, erakunde eta irakurleen bultzadari esker. Batzuk joan eta beste batzuk etorri, guztiok osatu, osatzen eta osatuko dugu TXINTXARRI. Bidelagun horiekin guztiakin festa eder bat egin genuen gure urtebetetze egunean, izan ere, langileak bagara baina jai giroa ere gustatzen zaigu e! Eta, egia esan, nori ez?

Agur esango diogu laster 2023ari eta kaixo 2024ari, eta, gimnasioan izena ematea edota tabakoa erretzeari uztea nola, badugu urte berrirako erronka eder bat: orain arte egindako lana aitortzeaz ahaztu gabe, Lasarte-Oriako herritarren lokarri izaten jarraitzea, gertutasunez eta euskaraz, 1993ko urriaren 1etik egin izan dugun moduan. Horri lotuta, eta aurtun oro har txintxoak izan garelako, hementxe doa gure nahia: baliabideak justu eta larri arren ez galtzea ilusio edota kemen izpirik, herriko albiste eta berriak lau haizetara zabaltzeko ahalegin horretan. Izan ere, ez

gara nekatzen eta ez gara nekatuko Lasarte-Oria ere euskararen herri dela komunikatu, zabaldu eta iragaritzeaz, haize korrontearen norabidea batzuetan aurkako bada ere.

Milaka eskutitz izango dituzue irakurtzeko eta are opari gehiago prestatzeko, eta, horregatik, ez gara askoz gehiago luzatuko. 24an ikusiko dugu elkar gure herrian egingo dituzuen desfile, emanaldi eta eskutitz bilketan. Gure herrian gertatzen den beste edozeri buruz bezala, zuen iritsierari buruz gertutasunez eta euskaraz berri emango dugu.

Dena eskatzea ez da izango eta eskutitzarekin batera oparitxo bat: gure altxor preziatuenetako bat den argazki artxiboko hainbat irudi, zuen etorreretakoak.

Adeitasunez,

TXINTXARRI aldizkariko lantaldea.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo  
Gonzalez, Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Irati Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux  
Artetxe, Maitane Rebe, Julen  
Basterra, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

#### Banatzzaileak

Nikola Iraola, Xuban  
Urdalleta, Egoitz Epelde,  
Endika Merchan, Gorka  
Morales, Sergio Hernandez,  
Ander Hazas eta Iñigo  
Garcia.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

#### Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eus

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia





Familia askok parte hartu dute Ttakun KEk antolatutako 'Ikastaloo' egitasmoan. TXINTXARRI

## Olentzero eta Mari Domingiren zain

Bi pertsonaia maitatu horiei eta haien lagunei hilaren 24an egingo diete ongietorria herritarrek, goizez, Ttakun Kultur Elkarteak zenbait eragilerek eta udalarekin batera prestatu duen egitarauaren bidez. 12:00etan kalejira aterako dira erdigunean barrena

### Txintxarri

San Tomas azokarekin hasi dira urteko garai honetako harrerak: neguari eta Eguberriekin egin diete ongietorria herritarrek. Ez da azkena izango, igande honetan (hilak 24) gurera etorriko direlako Olentzero, Mari Domingi eta lagunak: Xixuko ahatea, Mari Teilatuko eta baita Porrotx pailazoa ere. Egitarau oparoa pres-

tatu du Ttakun Kultur Elkarteak aipatutako pertsonaia beso zabalik hartzeko, zenbait eragilerek eta udalarekin elkarlanean.

Gauzak horrela, herriko ikastetxeetako haurrak kantu jiran aterako dira erdigunean barrena, 11:00etan. Ordu bete geroago abiatuko da Olentzero, Mari Domingi eta lagunaren desfilea, Loidibarren pilotalekutik. Ordu erdiz

hara eta hona ibili ostean, Okendo plazara joan eta emanaldi koloretsua egingo dute Porrotx pailazoarekin batera. Azkenik, 13:00etatik 15:00etara, bi pertsonaia horiek haurrek tartetxo bat igaro eta eskutitzak jasoko dituzte Antonio Mercero aretoan. Tokiak aurrez hartu dituzte herritarrek eta ez da txanda bat bera ere hutsik geratu.

### Bisitak eta marrazkiak



Xixuko ahateak herriko ikastetxeak bisitatu ditu. TXINTXARRI

**Xixuko, "pozarren" ikasle artean** Garaikoetxea-Landaberi eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak bisitatu ditu ahate maitagarriak. "Oso gustura" egon dela esan du.



Marrazki eder askoak egin dituzte ikasleek. TXINTXARRI

**Ikasleen marrazkiak ikusgai** Olentzero eta Mari Domingiri harrera egin bitartean Okendon egongo dira ikusgai marrazkiak, goizean. Igoko ditugu baita ere TXINTXARRI-ren webgunera.

### Ekimen gehiago

Egun berezi hauetarako motorrak berotze aldera ekimen gehiago aurrera eramanez dituzte euskara elkarteak, esate baterako, *Ikastaloo*, arto irinarekin egindako

orea nola jo ikasteko, talogileen eskutik, Ttakunenea elkartearen. Haur eta gurasoek egindako jakiak haiek kozinatu dituzte gero eta askari ederra egin dute ekimeneko partaideek.

## MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

### \*IBILGAILUAK

MOTOZIKLETAK  
AUTOMOBILAK  
AUTOKARABANAK  
FURGONETAK  
KAMIOIAK...

### \*MEREKATARITZA

### \*BIZITZA ETA ERRETIROAK

### \*OSASUNA

### \*ISTRIPUAK ETA GAIKOTASUNAK

### \*ERANTZUKIZUN ZIBILA

### \*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK

### \*INBERTSIOAK

### \*PYMEAK...

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943-36 22 75 & FAXA: 943-37 24 13





# Eguberria eta negua, hemen San Tomas ospatu dute



Talogileak jo eta su ibili dira azokak irau bitartean. TXINTXARRI



Taloak txistorra edo txokolatearekin eskatzeko aukera izan dute herritarrek. TXINTXARRI



Euriak ez die ongi pasatzeko gogoia kendu herritarrei. TXINTXARRI



Txerrama eta kumeak Okendon izan dira. TXINTXARRI



Jatekoa eskuratuta, edateko sagardo freskoaren bila joan dira. TXINTXARRI



Patxi Larrañaga  
Ana Iparraguirre  
Naroa

Kale Nagusia 39 Lasarte-Oria Tel. 943-37,26 68



Eguberri on!





Zero Sette Akordeoi Taldeak emanaldia eskaini du San Pedro elizan. TXINTXARRI



Udal Musika Eskolako ikasleek ere Gabonetako emanaldia aurrera eraman dute. TXINTXARRI

# Martxan dira Gabonetarako iragarritako jarduerak

Udaleko Jaiak, Gazteria eta Kultura sailek askotariko jarduerak antolatu ditu Eguberrietarako. Horien guztien artean iragarritako Zero Sette Akordeoi Taldearen eta Udal Musika Eskolaren musika emanaldiez gozatu ahal izan dute dagoeneko herritarrek, baina izango dituzte, urtaril hasierara arte, beste hainbat, hala nola, San Tomas azoka edota Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

## Txintxarri

Gabonak ate joka daude eta herriko musika taldeek data hauei lotuta egin ohi dituzten saioen unea heldu da. Jose Manuel Crespok zuzendutako Zero Sette taldeak garai honetako abestiei ezagunekin osatutako erreperetoria jo zuen larunbat iluntzea, hilak 16, San Pedro elizan. Berataratu ziren berrogei bat lagunek sei akordeoi jotzaileek eta musikari batek jotako egitarauaz

gozatzeko aukera izan zuten; hauek izan ziren entzun zizutzen zenbait musika pieza: Félix Mendelshonn-Bartholdy-ren *Hark! The Heralds Angels Sing*; Irving Berlin-en, *White Christmas*; eta, H. Brannon-en *Rudolph The Red Nosed Reindeer*.

Bestalde, Udal Musika Eskolako ikasleek ere egin dute Eguberrietako erakustaldia; hilabeteotan entseatutakoa taularatu dute, kultur etxeko auditorioiko behe-

ko solairua goraino bete duten ikus-entzuleen aurrean. Solfoea ikasten hasi diren gaztetxoek gabon kanta batzuk abestu zituzten eta gero instrumentu ugariaren txanda izan zen, hala nola, gitarra klasikoa edota pianoa.

Aipatutako bi ekimen horien atzetik etorriko dira gainerakoak. Artikulu honen sarreran aipatu bezala, Lasarte-Oriako Udaleko hiru sailek antolatu dituzte horiek, (zen-

bait eragilerekin elkarlanean horietako batzuk): Jaiak departamentuak (granate kolorekoak), Kultura arloak (hori kolorekoak), eta Gazteria sailak (berde kolorekoak). Azken horrek proposatutakoak Gaztelekuan izango dira, 16:30etik 20:30era.

**AB. 22 - URT. 4**

Gabonetako Haur Parkea. Ohartarazi dute 14 urtera arteko

gazteei zuzendutako jarduerak dela, eta horientzat sarrera doakoa izango den arren, bertaratzen diren helduek euro bat ordaindu beharko dute sartzegatik. Gogorarazi dute, gainera, Eventos globales enpresa dela ekimen hori aurrera eramatearen arduraduna, 43.300 euroren truke.





Carrefour  
express

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



2024 zoriontsua opa dizuegu





**ABENDUAK 24**

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Pertsona maitagarriak etorriko dira herritarren artean opariak eta zoriontasuna banatzera. Eurekin batera izango dira, baita ere, Xixuko ahatea, Porrotx pailazoa eta Mari Teilatuko. Okendo plazan elkartuko dira herriko gaztetxoekin, goizez.

**ABENDUAK 31**

DJ gaua. Andatza plazan izango da eta bi txanda iragarri dituzte. Lehenengo familiei zuzenduta egongo

da (19:00etatik 20:30era) eta, bigarrena, berriz, gazteei (01:00etatik 04:00etara). Oihan Vega arduratuko da musika jartzeaz.

**URTARRILAK 5**

Errege Magoen etorrera. Meltxor, Gaspar eta Baltasar Lasarte-Orian izango dira. Goizean Atsobakar egoitzako egoiliarak bisitatuko dituzte, eta, bitartean, herriko haurren eskutitzak jasoko dituzte euren postariak, Okendo plazan. Arratsaldean, aldiz, desfilea egingo dute herriko kaleetan barrena.

Horrela, ekimen horretan antortxero gisa parte hartu nahi dutenek izena eman behar du dutela ohartarazi dute antolatzaileek. Hilaren 27an egin behar du hori, Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafe-tegian, honako ordutegian: 17:00etatik, 20:00etara. Lekuak mugatuak direla ere azpimarratu dute, eta, jakinarazi, lekuak izen emate ordenaren arabera esleituko direla.

Kabalgatarako jantzia une horretan banatuko dituztela jakinarazi dute.

**ABENDUAK 22**

Gabonetako apaingarriekin atonduko dute Gaztelekua.

**AB. 26-30**

Futbolin txapelketa. Bertan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman behar du. Hilaren 22tik aurrera egin dezakete hori, Gaztelekuan bertan (16:30etik, 20:30era).

**ABENDUAK 26**

Tik Tok aplikaziorako ikus-entzunezkoak grabatuko dituzte Gaztelekuan.

**ABENDUAK 28**

Inozente Eguna denez, inozentadak eta txantxak egingo dituzte Gaztelekuan.

**ABENDUAK 29**

Alkoholik gabeko koktelak prestatzen ikasteko tailerra, Gaztelekuan.

**ABENDUAK 30**

Urte Zahar Eguneako kanpaikadak egingo dituzte lasarteoriatar gazteek, Gaztelekuan.

**URT. 2-5**

Ping-pong txapelketa antolatu dute. Bertan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman behar du dutela ohartarazi dute. Hilaren 22tik aurrera egin dezakete hori, Gaztelekuan bertan (16:30etik, 20:30era).

**URT. 3-4**

Mahai jolas dibertigarrietan parte hartu ahal izango dute

lasarteoriatar gazteek, Gaztelekuan.

**ABENDUAK 22**

Alboka abesbatza eta Ordiziako Emotio taldearen kontzertua izango da Brigitarren komentuan. Azken hori emakumezkoen aho-tsez osatutako korua da. Emaldia 19:30ean hasiko da eta sarrera doakoa dela iragarri dute antolatzaileek.

**ABENDUAK 28**

New Orleans taldeak gospel kontzertua emango du kultur etxeko auditorioan. 20:00etan hasiko da, eta bertaratzeko sarrerek 14 euro balio dute.

**aldika** productos selectos

[www.aldika.com](http://www.aldika.com)  
Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA

ahatekinak  
ehizak eta hegaztiak  
bakailao gezatua  
ondoak  
marinatuak  
olagarroa

**ESKARIAK telefonoz: 943-37 70 89**  
**whatsapez: 687 05 81 72**  
**emailez: aldika@aldika.com**

**ANTONIO URRUZOLA**

Ondo pasa Gabonak!

**ZURGINTZA eta EBANISTERIA**

Etor zaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain poligonoa, 3. pabilioia USURBIL  
Tel./Faxa: 943-37 64 15 Mugikorra: 687 84 55 99  
[www.carpinteriaantoniourruzola.com](http://www.carpinteriaantoniourruzola.com)

Eguberri on!

Ainhoa Egara Solano

**AES**  
Ile apaindegia

943-37 02 54  
Blas de Lezo kalea, 5 behea

**txintxarri**  
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,  
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarrinahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!**

**Deskontu bereziak herrikoentzat!**

**ESKATU TARIFAK:**  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) • 646 82 44 66



Zorionak

2mó 99€

erreflexuen aurkako  
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

**MULTIÓPTICAS**

[www.multiopticas.com](http://www.multiopticas.com)



943 37 74 55  
Kale Nagusia, 15.  
LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua  
WhatsApp  
bidez



# Aldarrikapen eta eskakizunak, udalbatzan

Aurreikusitakoak baino bi gai gehiago eztabaidatu ditu udalbatzak hil honetako ohiko saioan. Palestinaren aldeko mozio bat aurkeztu du Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikak, eta mobilizazioa egin, saio hasi baino 15 minutu lehenago, udaletxe atarian

## Txintxarri

2023ko azaroaren 9an eta 29an egindako osoko bilkuren akten onarpenarekin eman dio hasiera udalbatzak hil honetako ohiko udalbatzarrari, eta, jarraian, 4/2023 kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko espedientearen berri eman dute.

Gai ordeneko hirugarren puntuan landu dute saioko lehen mozioa, LAB sindikatua. Haurrek lehen haurtzaroko hezkuntza eta zaintza eskuragarriak eta kalitate onekoak izateko eskubidea dutela aldarrikatu du sindikatua, eta eskatu, Lasarte-Oria-

ko haurreskola handitzea edo berria zabaltzea, dagoen eskaerari erantzun ahal izateko. Aho batez onartu dute gaia.

EH Bilduk aurkeztutako mozioa landu dute gero; Plazao-lako bide berdeaz mintzatu da alderdia, eta azpimarratu du Lasarte-Oriarentzat zein Burretaldea osorako bide hori garatzeak mugikortasuna, aisia zein turismo baliabide bezala duen garrantzia, eta hori hala izanik, honako bi eskaerak egin ditu. Desadostasunak eragin ditu gaiak. PSE-EE eta EAJ-PNVk aurka bozkatu dute. ELOP Elkarrekin Podemos Lasarte-Oria alde

agertu da, eta PPK, berriz, abstentzioaren alde egin du. Gauzak horrela, bertan behera geratu da mozioa. PSE-EEK eta EAJ-PNVk, berriz, "egokiagoa den" alternatibo bat aurkeztu dute. Aurrera egin du; hau izan da bozketaren emaitza: PSE-EE eta EAJ alde; EH Bildu, aurka; eta, ELOP eta PP, berriz, abstentzioa.

## Bi mozio, urgentziaz

Bi mozio gai ordenan gehitzeko eskatu dute bosgarren eta seigarren puntuetan. Palestinarekin Herri Dinamika eragilearen mozioa izan da horietatik lehena, eta Euskal Herri-

ko Pentsiodunen Mugimendua-rena, bigarrena.

Lehenengoan, hamabi eskaera egin dizkiote udalari, horien artean Israelgo Estatuari nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzea irmoki eskatzea. Ez du aurrera egin; EH Bilduk eta ELOP alderdiek baino ez baitute alde bozkatu (PSE-EE eta PP aurka agertu dira). Puntu horretan ere, PSE-EEK eta EAJk mozio alternatibo bat aurkeztu dute, hori ere aurrez landutakoa baino "egokiagoa" dela argudiatuz. Aldeko 12 botorekin (PSE-EE, EAJ, ELOP eta PP) eta aurkako bostekin (EH Bildu), onartuta geratu da.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua aurkeztutako mozioan, berriz, osoko bilkurari eskatu diote taldearen funtsezko aldarrikapen baten aldeko babesa, hau da, pentsiodun guztiek gutxienez 1.080 euroko diru sarrerak izatea bermatzea, hamalau ordain-saritan. Ez du aurrera egin gaiak, aurkako boto gehiago batu baititu, aldekoak baino;

hau izan da emaitza: PSE-EE eta EAJ-PNV aurka, eta EH Bildu, ELOP eta PP, berriz, alde.

Azken mozio horri ere alternatiboa aurkeztu diote PSE-EEK eta EAJk, eta aldeko 11 botorekin onartua geratu da. EH Bilduk (5), ELOPek (1) eta PPK (1) aurka bozkatu dute.

Saioa amaitu aurretik, zenbait galdera egin dituzte EH Bilduk eta ELOPek.

## Lehenago, elkarretaratzea

Palestinaren aldeko mobilizazioa aurrera eraman zuen, beste behin, Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamika eragileak. Udalbatzarra baino ordu laurden lehenago egin zuten protesta udaletxe zaharraren eraikinaren parean, San Pedro elizaren atarian, *Genozidioa gelditu, Palestina askatu* lelopean. Hori amaituta, udaletxera sartu ziren. Ohiko udalbatzarrean erregistratutako mozioaren eztabaida zuzenean jarraitu zuten.

Albiste, osorik, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian irakur daiteke.

# Uraitz, s.l.



## Igeltseritza Orokorra

2024 urte zoriontsua opa dizuegu!

### • BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKARREAN

### Telefonoa

**693 05 93 92**  
**943-56 66 40**

[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com)

[www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)

BULEGOA:  
HIPRODOMO ETORB. 10 BEHEA 3  
LASARTE-ORIA



# Ventanas Alcar-ek irabazi ditu bi sariak

Erakusleihen lehiaketa "arrakastatsua" izan dela azpimarratu du Aterpea elkarteak, iaz baino hiru aldiz herritar gehiagok parte hartu baitute bozketan. Jon Cortazar eta Arantxa Ruizek 300 euroko erosketa bono bana irabazi dute, herriko dendetan erabiltzeko

## Txintxarri

Pintxo bidean Araeta sagardotegiarekin gertatu bezala, erakusleihen lehiaketako bi sariak, profesionala eta herritarrena, establezimendu bakar batek eraman ditu: Ventanas Alcar-ek. Lantalde osoaren izenean Ana Laureanok jaso ditu garaikurrak, eta, hunkituta, eskerrak eman dizkie lankide, gainerako partaide eta egitasmoan parte hartu duten bezero guztiei. Kompetizio bat bainoago, eskaparateena "joko" bat dela nabarmendu du eta helburu garbi bat duela: lasarteoriarrek euren udalerriko tokiko dendetan eroste, eta, bide batez, Eguberriak girotea.



Antolatzaile, parte hartzaile eta udal ordezkariak. TXINTXARRI

Rural Kutxa bankuak babestu du sari profesionala eta Lasarte-Oriako bulegoko zuzendari Mikel Cortak banatu. Epaimahaia hauek osatu dute: Biyak Bat egoitza, Erketz EDT dantza taldea, Amaia Gonzalez Caballero akademia eta Rural Kutxak berak. Bigarren postuan berdinduta geratu dira Ormazabal loradenda eta Izaguerri loteria administrazioa eta hirugarren tokia Mabel modarentzat izan da. Lehia estua izan da, irabazleak bozen %12 pasatxo eskuratu dituelako, bigarren tokian geratu direnek %10 eta "podiuma" osatu duenak %9.

Aterpeko kide Arantza Aldaik adierazi du antolatzaileak "pozarren" daudela, iazko lehiaketan baino bezero dezente gehiagok eman dutelako iritzia aurten: boto ia hirukoitzak zenbatu dituzte, 1.500 guztira. Euren iritziz Ventanas Alcar-ek prestatu du erakusleho dotoreena eta atzetik sailkatu dira Mabel moda eta Ormazabal loradenda. Ohi bezala, herritarren parte hartzea saritu du merkatarien elkarteak: 300 euroko bi bono irabazi dituzte Jon Cortazarrek eta Arantxa Ruizek.

## Martutenera hurbildu dute Aitzel Iriondo lasarteoriatarra

Etixerat elkarteak jakinarazi du Lannemezango espetxetik Martuteneko kartzelara hurbildu dutela Aitzel Iriondo herritarra. Hamabost urte eman ditu preso Frantziar Estatuan. 2019tik zera man gatibu Lannemezanen eta horren aurretik Moulins Yzeureko kartzelan egon zen. Gerde herrian atzeman zuten 2008an, ETako kide izatea egotzita.

## Galarretan gertatutako istripu baten lekuko bila

Joan den azaroaren 29an ibilgailu batek bi emakume harrapatu zituen GI-3401 errepidean, 10:30ak aldera. Donostiako Ospitalera eraman zituzten bi pertsona horiek, zaurituta, eta hil egin zen horietako bat. Ezbehar horretan gertatutakoa argitzen saiatzen ari da Ertzaintza ordutik eta lagun dezaketen lekuko bila. 943-53 91 19 telefono zenbakira deitzeko eskatu dute.

**INPRENTA**  
offset eta digitala

**DISEINU GRAFIKOA**

**DISEINU EDITORIALA**

Goza ezazue jai hauetan  
Urte berri on!

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu ibilbidea, 2 20160 LASARTE-ORIA

Tel. 943-37 07 38 [info@antza.eus](mailto:info@antza.eus)

[www.antza.eus](http://www.antza.eus)

**Garcia**  
**AUTOBUSAK**

Nafarroa etorbidea, 32 2.A  
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ  
Tel: 609 47 94 78

[info@garciabus.com](mailto:info@garciabus.com) - [www.garciabus.com](http://www.garciabus.com)



Urte berri zoriontsua  
izan dezazuela!

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu proposak
- Bestelako zerbitzuak



# Pailazoen lana saritu du Gehiago Gara ekimenak

Haurren heriotzaren aurrean naturaltasunez eta humanitatez jardutea du xede egitasmo horrek eta aitortza egin die zeregin horretan diharduten elkarte eta erakundeek, horien artean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei

## Txintxarri

"Haurren gaixotasunaren eta heriotzaren aurrean erakutsitako arreta eta zaintzagatik" eta *Amaren intxaurrak* ikuskizunarekin heriotzaren gaia haurrekin lantzeagatik aintzatetsi dituzte Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguezek jaso dute ikurra Bidegin Elkarteke Begoña Berroetaren eskutik. Ez dira bakarrik izan, ordea. Beste sei eragileren jarduna ere aitortu dute: Antzuolako Herri Eskola, Gurutzetako Ospitaleko Zaintza Aringarri Pediatrikoen Unitatea, Bilbo-Basurtuko ESIko jaiotza-doluko lan taldeak, Oiartzungo



Ezker-eskuin: Mertxe Rodriguez, Begoña Berroeta eta Joxe Mari Agirretxe. GEHIGAGO GARA

Udala, Tolosako Haur Liburutegia eta Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea izan dira.

Heriotza gizartean tabua bada, haurren heriotza are eta tabu handiagoa da. Hala sentitzen dute Hil Argi Elkarteak sortu zuten haurrak galdu dituzten gurasoek. "Isiltasuna eta ezintasuna" sumatzen zuten inguru askotan eta hura gainditu eta haurren heriotza "modu naturalago eta humanizatuagoan" bizi daitekeela sinetsita, Gehiago Gara ekimena abiaraztea erabaki zuten. Bizipoza Elkartearekin bildu ziren, "berezkoa baitu haurren bizi indarra eta poztasuna areagotzeko helburua", eta gerora batu ziren haurren heriotzaren gainean alor ezberdinetan lan egiten duten Esku Hutsik Elkarteak, Heriotza Haurrekin, Bidegin Elkarteak eta Goizargi Elkarteak. Donostiako Cristina Enea Fundazioaren egoitzan aurkeztu dute egitasmoa.

Aitortzak banatu aurretik, manifestu bat aurkeztu dute ekimenaren muina azaltzeko. Osorik irakur dezakezue [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalean.



Zataraingo etxeak. TXINTXARRI

## Eremu tentsionatu izan daiteke herria

Lasarte-Oria hala izendatzea eska dezake udalak; aukera izan dezake herriko alokairuen prezioak mugatzeko. Prozedura hasteko, eskaera egin beharko dio Eusko Jaurlaritzari eta hiru agiri aurkeztu: eremuaren mugak, datuetan oinarrituta behar adina etxebizitza eskaintzeko aukera ez dagoela arrazoitzen duen memoria, eta gabeziei erantzuteko hiru urteko ekintza plana.



SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



**Ondo pasa eguberrietan!**

Pintore kalea, 5 Lasarte-Oria | Tel: 943-36 14 71 | [www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)



**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

*2024 zoriontsua izan dezazuela!*

• komertzial instalazioak • beira bikoitza  
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943-37 17 33 - 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com) / [anorgatxiki@gmail.com](mailto:anorgatxiki@gmail.com)

Tintoreria **Lizardi** Tindategia



Uistin kalea 6  
LASARTE-ORIA  
610 28 61 05  
[tintolizardi@gmail.com](mailto:tintolizardi@gmail.com)

**Mota guztietako ehunak garbitzen eta lisatzen espezialistak (edredoiak, mantak, alfonbrak, ezkontza soinekoak, jaunartzea...)**

eguberri on!

Eguberri eta Urte Berri on!

**TABERNA**  
**Buenetxea**  
**KAFETEGIA**

Eguberri eta Urte Berri egunetan  
eguerdiko 12.00etatik  
aurrera **IREKITA!!**

Gabon eta  
Urte Zahar gauetan  
**GAU OSOA IREKITA!!**

Pablo Mufiozabal 2, Lasarte-Oria ! Tel. 943-36 95 08



# Gabonak



TXINTXARRI

## Geldialdietako bat, Lasarte-Orian

la lau hamarkadako ibilbidea ixteko, agurreko birari ekin zion urrian Golden Apple Quartet-ek eta kultur etxean egin du geldialdietako bat. Egin dituzten ikuskizunak gainbegiratu eta abesti arrakastatsuenak aukeratu dituzte, ikuslegoak gustukoak dituenak.

Nola ez, umorearekin uztartzen joan dira emanaldian zehar eta abesteaz harago, musika sortzeko duten gaitasuna beste behin agerian utzi dute. Saio bukaeran azken urteetan laukoteko parte izan den Mikel Urreizti batu zaie.



TXINTXARRI

## Irakurketaren magia

Anita Maravillas konpainiak *Andereno* txotxongilo ikuskizunaren emanaldia egin du Manuel Lekuona Kultur Etxean. Azeriak eskola bat du basoan eta animalia guztiak dute bertan beren lekua. Irakurtzen irakatsiko die, liburuek duten magiarekin liluratu, eta aske izateko hezkuntzak duen garrantzia ulerraziko die.

## Alboka eta Emotio, batera

Eguberrietako kontzertua emango du gaur (hilak 22) Alboka Abesbatzak, Ordiziatik etorritako Emotio taldearekin batera. Ama Brigitarren komentuan ariko dira 19:30etik aurrera. Sarrera doakoa da. Emanaldira bertaratzen direnek garai historiko desberdinetako Gabon kantez gozatu dute. Bestalde, herriko abesbatzak kantu jira egingo du 24an, 11:00etan hasita.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Azken irakurketa saioa

Irakurzaletasuna sustatzeko Bookstart Euskadi programaren barruko Liburu Baby Klubeko bigarren eta azken saioa egin dute. 40 bat haurrek parte hartu dute ekimenean, gutxienez, heldu batek lagunduta. Denek dinamizatzailearekin batera irakurri, abestu eta jolastu dute. Egitasmoak 0 eta 2 urte bitarteko haurrei doako liburuak eskaintzen dizkie.

**adats**  
ile-apaindegia

2024  
zoriontsua  
izan dezazuela!!

Geltoki kalea 3  
MUGIKORRA: 600 52 39 88  
LASARTE-ORIA

**GESBOX**  
LASARTE

OSTALARITZA ETA  
SALTOKIETAKO EKIPAMENDU  
INSTALATZAILEETAN  
ESPEZIALISTAK

PLAZA ARALAR, 1 | LASARTE-ORIA  
TEL.: 943-37 13 13  
[www.gesbox.net](http://www.gesbox.net)

Software Neron

INBENTARIOA

DELIVERY

KUDEAKETA

SUKALDEA PANTAILA/ INPRIMAGAILUA

TAKE AWAY / TPV2

KOMANDAK / TPV

KARTA DIGITALA

**pikabea**  
ASEGURU ARTEKARITZA

Aseguru mota guztiak.  
Eskatu aurrekontua!

Ondo pasa Gabonetan  
eta urte berri on!

Uzturre Plaza, 8  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943-37 11 18  
[pikabea@pikabea.eus](mailto:pikabea@pikabea.eus)  
[www.pikabea.eus](http://www.pikabea.eus)



# Martinez, Olasagasti eta Andres, sarituak

Hiru kirolarien jarduna edo ibilbidea sarituko du Lasarte-Oriako Udalak Kirol Galan. Hitzordua gaur, hilaren 22a, 19:00etan da Manuel Lekuona kultur etxean. Kirolariez gain, herriko beste elkarteetako kideak ere izango dira oholtza gainean

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Gala izango da gaur, hilaren 22an, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean. Herriko kirolariez gain, herriko beste elkarteetako kideak ere izango dira oholtza gainean.

Urtero moduan bi kirolariren jarduna aitortuko du Lasarte-Oriako Udalak. 2023 urteko kirolari onenen sariak Paula Martinez gimnastak eta Markel Olasagasti golf jokalaria jasoko dituzte. Martinez senior B mailako Euskadiko zein Gipuzkoako txapeldun izan da aurreneko eta Olasagasti 19 txapelketa



2023 urteko sarituak: Martinez, Olasagasti eta Andres. LOKE GIM/GIPUZKOAKO GOLK FED./ OSTADAR ATL.

jokatuta 3 garaipen eta 11 Top-10 eskuratu ditu; Euskal Federazioko Ranking-ean lehen postuan da.

Kirol ibilbidearen saria, aldiz, Amaia Andres Ostadar Atletismo sailako arduradunari emango

diote. Andres, besteak beste, Espainiako txapeldun izan zen eta 1992ko Joko Olinpikoetan parte hartu zuen; gaur egun, atletismoarekin lotutako erakunde ezberdinetako kide da.

## Eguzki Areto Futboleko taldeak puntuak metatzen doaz

Elkarteko taldeek etxean jokatu dute jardunaldia; infantilek izan ezik, gainerakoek garaipena erdietsi dute

### Txintxarri

Eguzki Areto Futbol klubeko taldeek Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zuten hilaren 15ean eta 16an. Lehen taldeak atsedena izan zuten, baina gainerakoak ederki jardun ziren eta lau taldetatik hiruk garaipena erdietsi zuten.

III. mailako Eguzki ISU Leihoak izan zen lehena kantxara ateratzen, hilaren 15ean. Neurketa borrokatua jokatu zuten Aldapeta Maria ikastetxearen aurka eta 3-2 gailendu ziren etxeok.

Hurrengo egunean, taldeko txikiek eman zioten hasiera areto futbol jaialdiari. Infantilek Lauburu KE Ibarra 2010 izan zuten aurrez aurre. Neurketa hasieratik ibarratarrek euren nagusitasuna erakutsi eta 0-15 irabazi zuten.

Emaitza txarraren zaporea kentzeko, kadete taldeak garaipeneko



3. mailako neurketako irudia. TXINTXARRI

puntuak erdietsi zituen Zarautz Gran Camping taldearen aurka; 6-1 gailendu zen etxeok taldea.

Eta gazteen taldeak ere garaipen batekin eman zion amaiera egunari. Mondrate 9-2 garaitu zuten Francisco Javier Kixki Perezen taldeak.

**%20eko  
deskontua  
eguzkitako  
betaurrekoetan**



## IRIGOYEN

### OPTIKA

*Gabon hauetan, oparitu osasuna!*

**2024 zoriontsua  
opa dizuegu!**



Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943-37 10 47

## Bideo = TIEN 21 = Lagunak

 Finantziaria neurria

 Garraio zerbitzua

 Erabilitako gailuen jasotzea

 Aholkularitza espezializatua

 Prezio onena

**Etxekotresna  
elektrikoetan adituak**



Zatoz ezagutzera gure,

# GABONETAKO

eshaintza bereziak!

Donostia etorbidea, 2 · LASARTE-ORIA | Tel: 943-37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)



## Ostadarreko Euskal Ligako taldeek, batean bale, bestean kale

Boleibol saileko kadete taldeak ere jardunaldia jokatu du eta garaipena erdietsiz amaitu du lehen fasea

### Txintxarri

Euskal Ligako Ostadar Boleibol saileko taldeek zorte ezberdina izan zuten urteko azken jardunaldian. Bi taldeek Bizkaiko ordezkariek izan zituzten aurrez aurre.

Maialen Chourraut kiroldegian, CV Gallartaren Ahotsaren aurka neurtu zituzten indarrak I. mailako kideek eta denboraldiko hirugarren garaipena eskuratu zuten, 3-0 (25-15,15-18 eta 25-17).

II. mailako taldeak, aldiz, Getxora egin zuen bidaia eta aurka emaitzarekin itzuli zen etxera. Neurketa borrokatuaren ostean, Getxoko Aixerrotak 3-1 (25-22, 18-25, 25-23 eta 25-19) garaitu zituen.

### Gipuzkoako txapelketa

Gipuzkoako mailari dagokionez, kadete taldeak bakarrik izan zuten jardunaldia.



Euskal Ligako neurketako irudia. TXINTXARRI

Zarautzen jokatu zuten urdin-beltzek eta Salbatore Mitxelena 1-3 (21-25,25-11,17-25 eta 23-25) garaitu zuten.

Lehen fasea amaituta, urtarrilean senior, junior, kadete eta infantil mailako kideek Gipuzkoako txapelketari aurre egingo diote.

## Eguberrien atarian ere, herritarrek atsedunik ez

Zizurkil, Gasteiz edo Irunen lehiatzen dira herritarrek. LOTMEko kideek Txindokin eman diote urteari amaiera

### Txintxarri

Lasarte-Oriako korrikalari zein herriko taldeetako ordezkariek hainbat probatan izan ziren hilaren 16an eta 17an.

Zizurkilgo Gau krosean izan zen ordezkaritzarik handiena, zortzi herritar. Lehen hamarren artean izan zen gainera horietako bat, Julen Goenaga (24.29) zortzigarren iritsi zen helmugara.

Horiez gain, Lasarte-Oria Trailero (LOTME) kide Arantza Zapata (30.46) eta Mikel Caballero (01.21.04) Irungo Gabonetako krosa eta Gasteizeko Maratoi-erdia lehiatu zituzten, hurrenez hurren.

### Txindokira irteera

LOTMEko kideek ohitura moduan urteko ibilaldiei amaiera eman diete Txindokira igotzen. Hilaren 17an, 15 lagunez osaturiko koadrila Larraitzetik irten zen eta inguruaz gozatuz tontorrera iritsi



Txindokiko irteerako irudia. LOTME

ziren. Jaistean indarrak berritze-ko Larraitzen hamaiketako ederra egin zuten.

### Atletismo probak

Antonio Elortza belodromoan jokatu zen proba libreetako hirugarren jardunaldian, berriz, atletismo egokituko denboraldiko lehen proba izan zen, 60 metroko lasterketa. Ostadar Inklusiko Aimar Gonzalez, Jon Mendoza eta Manex Pagola lehiatu ziren horretan eta lehenak egin zuen markarik onena (08,93).



Buruntzaldea IKTko kidea igerian. TXINTXARRI

## Alebinek maila erakutsi dute Maialen Chourraut kiroldegian

Buruntzalde IKTko alebin mailako zazpi kidek euren ligako hirugarren jardunaldia aurre egin zioten, hilaren 16an, Maialen Chourraut kiroldegian.

Saioan oinarrizko probak 200 m. bizkar eta 100 m. tximeleta izan ziren adin guztietarako eta hasiberriek 50 m. bular ere egin zuten.


Guztiak gogotsu aritu ziren igerian eta maila ona erakutsi zuten euren jardunean.

Urteari amaiera emateko, hilaren 23an, Paco Sanchez Sarian parte hartuko dute taldeko txikiak. Helduek, berriz, Neguko Ligako laugarren jardunaldia izango dute, Tolosan.



# ILLARRETA

## ITURGINTZA ETA IGELTSEBITZA



2024 zoriontsua opa dizuegu!

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua



[info@illarreta.com](mailto:info@illarreta.com)

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitza eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria | Tel. 606 38 66 15 eta 943-36 17 52



# Gabonak

## Lasarte-Oriako futbol taldeek zorte ezberdina izan dute

Hilaren 23an, zortzi taldek jardunaldia jokatu dute; Eguberriko torneoetan ere izango dira herriko ordezkariak

### Txintxarri

Denetariko emaitzak izan zituzten herriko futbol taldeek hilaren 16-17ko jardunaldian.

Ostadar SKTko taldeen artean, azpimarratzekoa da Ohorezko Erregional Mailako taldeak lortutako garaipen berria. Lehen postuetan mantentzeko beharrezko puntuak lortu zituen Tolosa 4-1 irabaziz. Bestalde, kadete nesken taldeak urteko azken neurketan 0-4 galdu zuen Intxaurdiren aurka.

Texas Lasartearra CFren kasuan, kadete taldeak izan eziz,



Kadeteen neurketako irudia. TXINTXARRI

gainerakoek puntuak eskuratu zituzten euren neurketetan. I. Erregionala 2-5 nagusitu zen Intxurreren aurka. Jubenilek emaitza bera lortu zuten etxean

Seguraren aurka. Kadete mailan, aldiz, Danena 3-1 nagusitu zen eta infantilek Landetxarekin bina berdindu zuten txapelkunen fasean.

### Jardunaldia eta Gabonak

Herriko talde gehienek hilaren 23an atseden izango duten arren, hainbatek liga jardunaldia izango dute, hala nola, talde urdin-beltzeko Ohorezko Erregionalak, Erregional Gorenak, Jubenil eta Kadete Ohorezko bi taldeak eta Ostadar zein Texas Lasartearra-ko infantilek. Michelin kirol gunean jokatu dira horietako batzuk (ikus 30. orrialdeko agenda).

Eguberrietan txapelketa ofizialik egon ez arren, Ostadar eta Texas Lasartearra hainbat taldek laguntasun txapelketetan parte hartuko dute.

## Ostadarri azken minutuetan egin dio ihes neurketak

I. mailako taldeak partida borrokatua jokatu arren, azken minutuetan ez du urduritasuna ongi kudeatu

### Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko I. mailako taldeak Vivanta Oiarso izan zuen aurrez aurre urteko azken partidari. Ederki borrokatu ziren bi taldeak eta azken minutuetan erabaki zen garailea; aurkaria 57-67 gailendu zen.

Gogotsu atera ziren taldeak kanxara eta neurketako lehen zatia berdiketarekin amaitu zen, 33-33.

Hirugarren laurdena bi jaurtike-ta hirukoitzekin amaitu zuen Oiarso eta horrek azken hamar minutuak lauko aldearekin hastera ekarri zuen.



Ostadar, erasoan. TXINTXARRI

Talde urdin-beltzeko jokalariek ez zuten amore emango eta partida berdintzea lortu zuten. Halabaina, azken hiru minutuetan urduritasunarengatik akats batzuk egin eta garaipenak alde egin ziren. Pertsonaleko marraztik bereganatu zuen aurkariak neurketa.



LOKE JUDO A

## Gerriko beltzak eta dominak

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Judo ataleko kideek hiru hitzordu izan dituzte hilaren 16an eta 17an. Lehen egunean, LOKEko Ibon Palomo eta taldearekin entrenatzen den Aitor De la Torre durangarrak gerriko beltzeko azterketa gainditu zuten, Donostian eta Urnietan Gabonetako infantil mailako txapelketan hainbat domina jantzi zituzten taldeko kideek. Hurrengo egunean, aldiz, taldeko txikiak euren senideei judo zer den irakatsi ahal izan zieten familiekin egin zen topaketan. Oiartzun, Hernani, Zarautz eta Lasarte-Oriako kirol elkarteetako kideak zein Egape eta Amassorrain ikastoleetako txikiak bildu ziren Hernaniko kiroldegian; lurreko, zutikako edo judo altematiboko ariketa ezberdinak egin zituzten.



TXINTXARRI

## Intzako Maiz, Ekialdeko txapelketatik kanpo

Intza Pilota Eskola Ekialdeko txapelketan ordezkari gabe geratu da. 2. mailako infantil Ekhi Maiz zen lehiaketan mantentzen zen pilotari bakarra eta ezin izan du aurrera egin. Hilaren 15ean, herriarrak Mundarrok Anzaren neurtu zituen indarrak Loibabarren pilotalekuan. Astigarra-gako pilotaria nagusitu zen; 5-8 eta 2-8 irabazi zuen Anzak.



TXINTXARRI

## Aurrerapausoak erakusten

2023 urteari amaiera emateko, Beltzak, Zarautz, Bera-Bera, Atletico San Sebastian eta Hernaniko errugbi eskoletako 10 eta 12 urtez azpiko gaztetxoek topaketa izan zuten Michelin kirol gunean. Pausoz pauso errugbian trebatzen ari direla erakutsi zuten jokalariek eta zelai izoztuari aurre eginez, entseguak, lasterketak edo plakaketak egin zituzten. Amaitzean, Beltzak RTko beterranoek prestatutako hirugarren denboraz gozatu zuten guztiek.

**ETXEZARRETA**  
HARATEGIA-URDATEGIA

## ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

*Eguberri on eta 2024 zoriontsua izan dezazuela!!*

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA



# Urtea pozik eta giro ederrean bukatzeko

San Silvestre lasterketak kolorez beteko ditu Lasarte-Oriako kaleak zazpigarrenez, hilaren 31n, 11:00etatik aurrera. 16 urtetik gorako herritarrek patinatu, korrika edo ipar martxa egin dezakete. Lanerako boluntarioak behar dituztela azpimarratu dute antolatzaileek

## Txintxarri

Amaitzear da 2023a eta hamabi hilabeteotako gazi-gozoak gorabehera, urtea pozik eta giro ederrean bukatzeko plana prestatu du aurten ere San Silvestre lasterketa antolatzen duen herritar taldeak. Iaz egindako proba (arratsaldetik goizera pasatzea) egonkortzea erabaki dute eta festa kutsuko jarduera eguerdian aurrera eramatea, 11:00etan hasi eta bazkalordura arte. Eguna, noski, ez dute aldatu: hilak 31, igandea aurten.

Festa giroko ekimen bat izateak ez du esan nahi edonork edozer edonola egin dezakeenik. Aurkezpen prentsaurrekoan behin eta



Antolatzaile taldeko zenbait kide, Agustin Valdivia alkatearekin batera. TXINTXARRI

berriro errepikatu dute antolatzaileek 16 urtetik gorako pertsonen soilik parte har dezaketela, hiru modalitate hauetakoren batean: patinak, lasterka edota ipar martxako makilekin. Lehen biek seina kilometro burutu behar dituzte, eta hirugarren multzoak, berriz, lau. Okendo plazatik irten eta helmugaratuko dira.

## Yeray eta Txema

Parte hartzera animatzen direnez gain bi protagonista nagusi izango ditu aurtengo lasterketak: Yeray Rodriguez gaztea eta Txema Valles kazetari beteteranoa. Lehenengoari eta familiari pintxo pote solidarioan bildutako dirua emango diote hesteetako gaixotasuna tratatzeko behar duen hazkunde hormona ordaintzen laguntzeko, eta, bigarrenari, 1 zenbakidun dortsala, *El Diario Vasco* egunkarian lau hamarkadaz Lasarte-Oriaren berri ematen egindako lanagatik.

Izena emateko epea irekita dagoela gogorarazi dute antolatzaileek. Hilaren 28a baino lehen apuntatuz gero 7 euro ordaindu behar dituzte, 29an edo 30ean egin ez gero, 10, eta 31n, 15. Urtero

## Egitarauko ekimenak

- **11:00etatik 14:00etara**, pintxo pote solidarioa. Dirua Yeray Rodriguez gazteari eta familiari emango diote.
- **11:00etan**, buruhandi eta erraldoiak.
- **12:00etan**, kanpaikadak Porrotx pailazoarekin.
- **12:15ean**, beroketa musikatua.
- **12:30ean**, lasterketa.

Proba amaitu eta gero sari ugari banatuko dituzte, ez soilik azkarrenei, baizik eta ongien moztortzen direnei, bakarka nahiz taldeka.

legez, lanerako boluntarioak behar dituztela gogorarazi dute antolatzaileek, haiek gabe "ezinezkoa" delako proba aurrera eramatea. Udalari eta herriko komertzioei emandako laguntza eskertu diete.

## Eguberrietako kirol jarduerak

Urteari amaiera ematen dion lasterketaz gain, Lasarte-Oriako Udalak zein hainbat kirol elkarteek antolatutako beste kirol jarduera batzuk ere izango dira Lasarte-Orian.

Hilaren 26tik urtarrilaren 7ra, benjamin, alebin eta infantil mailako Gabonetako areto futbol txapelketak Maialen Chourraut kiroldegiko eta Michelin kirol guneko kantxak hartuko ditu.

Hemezortzi taldek –zortzi infantil, bost alebin eta bost benjamin– arituko dira

lehiari Eguzki Aretu Futbol taldearen txapelketan. Maialen arabera, urtarrilaren 3ra arte lehen fasea jokatuko dute. Lau talde onenak sailkatuko dira azken faserako.

### Uretako festa

Hilaren 28an, ostegunarekin, uretako festa izango da Maialen Chourraut kiroldegian.

Herriko haur eta gaztetxoek (5-12 urte bitarteko jarduerak), 10:00etatik 12:00etara, puzgarri, txirrista eta bestelako

gauzekin igerilekuan jolastu eta gozatzeko aukera izango dute.

Doako jarduera izango da abonatuentzat. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, haurrek igeri egiten jakin behar dute, bakarrik sartuko baitira.

### 3x3 txapelketa

Bi egun geroago, hilaren 30ean, larunbatarekin, Ostadar SKTK antolatutako 3x3 lehiaketa jokatuko da Maialen Chourraut kiroldegian.

Lau mailatan banatuta –benjamin, alebin, infantil eta kadete kategoriak–

saskibaloia lehiak ikusteko aukera izango da goizean zehar kiroldegiko kantxan.

### Buruntzara igoera

Urteari amaiera emateko, aldiz, Ostadar SKTK eta Ttakun Kultur Elkartek herritarrek Buruntza mendira igotzeko gonbita egiten diete herritarrei.

Goizean zehar, San Roke baselizara hurbiltzen diren mendizaleek indarrak berreskuratzeko jakiak eta edariak izango dituzte. Dantzan egiteko aukera ere izango dute bertaraturakoek trikitixa eta pandero doinuei esker.

# Jalgi

kafetaria  
antzokia

Geltokia Kalea, 4 behea  
LASARTE-ORIA



Ondo pasa  
eguberriak!


Gabonetako ordutegiak  
Igandeak 24 eta 31: 21:00ak arte irekita  
Astelehenak 25 eta 1: 11:00etatik 15:00etara



# Jalgik, 25 urte

## Joseba Sarrionandia eta Andoni Egaña, solasean

Jalgi kafe antzokia 1998ko urtarrilaren 24ean zabaldu zuten. Beraz, mende laurden bete du aurten. Tarte horretan euskararen eta euskaltzaleen bilgune izan da, baita makina bat kultur ekitaldiren gune ere. Azkena, hilaren 14koa, ostegunarekin: Andoni Egaña bertsolariak eta Joseba Sarrionandia idazleak makina bat gairi buruz gogoeta egin zuten ekimenera bertaratutako 50 bat ikus-entzuleekin batera. Solasaldiari ekin aurretik, Ttakun Kultur Elkarteak oroigarri bat eman zion gaur egun taberna kudeatzen duen Ana Sarasolari, bilgune horrek beste hainbat urte beteko dituenaren itxaropenarekin.



Lan askoren ondoren, 1998ko urtarrilaren 24an inauguratu zuten Jalgi, herritar ugariren aurrean. TXINTXARRI



Jalgiko kudeatzaile Ana Sarasolak oroigarri bat jaso zuen Ttakun KEren partetik. TXINTXARRI



Egaña eta Sarrionandiak gai askori buruz hausnartu zuten. TXINTXARRI



Ekitaldiak jakin mina piztu zuen lasarteoriatarren artean. TXINTXARRI



Familia eta lagun lasarteoriatarrei, Eguberri onak opa dizkizuegu eta 2024. urtean jarrai dezagun ametsak elkarrekin betetzen.

URTE BERRI ON!



Beko kale bidea, 1 2. solairua • LASARTE-ORIA



# Hezkuntza inklusiboaren eskola eratu dute

"Euskal Herria inklusioan zipriztintzeko" gida didaktiko eta material osagarriak bildu dituzte Bizipoza Eskolan, hezkuntza arautuan nahiz ez arautuan edota herrigintzan erabili ahal izateko. "Adin eta maila guztietara" irekitako egitasmoa dela azpimarratu dute sortzaileek

## Txintxarri

Bizipoza Eskola "behar bati erantzutera" datorrela nabarmendu dute aurkezpenean parte hartu duten ordezkariak: Bizipoza elkartearen koordinatzaile Leire Elizegi, Danobatgroupeko lehendakariorde Jose Antonio Hidalgo, eratu berri duten proiektuaren arduradun Nerea Godoy, proba pilotuetan parte hartu duten Amassorrain nahiz Aratz ikasleak nahiz Hil Argi, Arnasa eta Ndank Ndank elkarteetako ki-deak. Hezkuntza inklusiboa da guztiek azpimarratu duten premia hori, eta, zentzu horretan, Bizipoza Eskola "ekarpen praktiko bezain garrantzitsu eta beharrezkoa" egitera dator.

Bizipoza Eskolaren webgunean ([bizipozaeskola.eus](http://bizipozaeskola.eus)) gida didaktikoak, material osagarriak eta egutegia bildu dituzte. Horiei esker, gai ugari jorratu ahal izateko erabiltzaileek: norbere buruaren ezagutza eta taldekidetasuna; genero rola, identitatea eta transexualitatea; familia aniztasuna eta sexu orientazioa; heriotza; kultur aniztasuna; gaixotasunak; aniztasun funtzionala; eta boluntariotza.

Hori guztia Euskal Herri osora zabalduko dute Bizipoza elkarteak ki-deak, aurkezpen hauek guztiak eginda: urtarrilaren 31n Baionan izango dira; otsailaren 7an, Gasteizen; 21ean, Bilbon; martxoaren 13an,



Gogotik ospatu dute Bizipoza Eskola sortu izana. BIZIPOZA ELKARTEA

Iruñean; eta, azkenik, 27an, Donostian.

## Danobatgroup babesle

Esan bezala, Bizipoza Eskolaren egitasmoa Danobatgroup enpresak finantzatu du, gizarte erantzukizunarekin zerikusia duten egitasmoak bultzatzeko aurrera eramaten duen Elkarrekin Eragin programaren bidez. Hidalgok adierazi duenez, "pertsonengan oinarritzen den proiektu sozioenpresarial bat izanik, guretzat

ezinbestekoa da inklusioa eta izaera bereziko gaiak lantzen dituen Bizipoza bezalako elkarte bati baliabideak ematea".

Ildo horretatik, Bizipozako ordezkariak agerraldia baliatu dute 2017az geroztik elkarte horren egitasmoei ekarpenak egin dizkieten kooperatiba eta enpresei eskerrak emateko. Denen artean 1.400.000 euro inbertitu dituzte, tarte horretan Bizipozak gauzatu dituen proiektuen ekarpen ekonomikoaren %85, hain zuzen ere.



NEURE KABUZ  
JEXUX ARTETXE

## Gogoramenaren garrantzia

Bizikidetzaren boladan dagoen hitza da. Bizikidetzaren zaintza nola antolatu behar den da garaiko kezkarik nagusienetakoa. Baina, zail egingo zaigu gaiari egokiro eustea elkarrekiko ardurarik hartzeko gertu ez bagara. Auzo onik gabe, ezinezkoa baita adiskidetzaren onak erakitzzea.

Gure iragan hurbilean ondo asko ikusi dugunez, gehiegietan gizakia gizaki hurkoenari otso gisa oldartu zaio. Horrela, auzokide hurbilenarekin ere ezin izan garela fio gertatu zaigu, borroaren alde egiten ari zelakoan. Ez dago egoera grabearik elkarbizitzarako. Euskal esatera zaharrek dioten bezala, auzoa hiletan zela ere ez baitziren gutxi poz giroan opiletan zebiltzanak. Orain, atzera begiratuta, portaera hori auzo-lotsagarritzat jotzen dugu. Hartu dezagun, bada, irakaspen gisa eta txerta dezagun gure gogoramenean. Izan ere, gaur adostasuneko da iraganeko sufrimenduaren memoria partekatzeak elkarren adiskidetzaren gaitueta.

Aurtengo Memoria Eguneko ospakizuna ekarri nahi dut hona. Mercero udal aretoan egindako ekitaldian, Jabier Urritegi lasartearen erailketa oroitu zen. Orain aste gutxi 32 urte bete dira ETAK gertakari krudel eta bidegabe hura egin zuenetik. Ekitaldi hartan, "egun ilun haien" ondoren bere senideek jasan izan duten biziera garrantzaren berri izan genuen, bere arreba Manolik idatzitako gutuna irakurri genuenean. Pasarte zirraragarrietan, etxe hartako bizimoldeetan gertatu zen aldaketa gogorra azaldu zigun. "Hutsune bete ezina" amarentzat, hil artean falta zitzaionaren tristura gainean zeramakiela. Biktimizaturik gertatu direnek sentitzen duten bakardadea eta herri-ikaragarritasunaren mehatxu erreala ere jabetu ginen.

Biktimak eraman behar duen karga ikaragarria da.

Baina, inork ez du egoera horretan hondoratuta bizi nahi. Urritegiaren bizi dutenetik ikas genezakeena horixe da. Gizakiek tragediaren kiribiletik ateratzeko berebiziko ahaleginak egin dituztela. Manolik esan duen bezala, beren bizitzaren erritmoa berreskuratu eta berbideratu nahi dute, "pakean, askatasunean eta lasaitasunean".

Ondo pasa eguberrietan!

# MZUBI

LASARTE-ORIA

Geltoki Kalea 21 LASARTE-ORIA

[muebleszubi@hotmail.com](mailto:muebleszubi@hotmail.com)

Tel.: 943-36 24 67







# zorionak eta urte berri on!

**Benetan gertu  
Benetako arreta  
Benetan profesionala**

Horrelakoak dira Lasarte-Oriako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuak.

**benetako bizitza**





# "Errutinatik ateratzen naiz argazkiak egiten"

**ION ZUGASTI** KIROL ARGAZKILARIA

Argazkilaritza lanbide ez baina pasio du herritarrak, kirol arlokoa batez ere. Proba askotan ikusiko duzue kamera eskuetan, hara eta hona, angelu eta istorioak bilatzen etengabe

**Iñigo Gonzalez Sarobe**

*Lasarte-Oria zure objektiboan* lehiaketako sariak banatu ditu berriki Lasarte-Oriako Udalak. Hamabi argazki aukeratu ditu epaimahai profesional batek datorren urteko egutegia osatzeko eta horietako bat da Ion Zugasti herritarrak ateratakoa, Brunet Enea parkean: udazkeneko ilunabar eder bat ikus daiteke. Iraileko irudia ez ezik, azalekoa ere bada. Argazkilariarekin elkartu da TXINTXARRI. **Nolatan animatu zara lehiaketan parte hartzera?**

Egia esan, ez naiz horrelakoetan parte hartu zalea baina herriko ekimen bat izanda, erronka moduan hartu dut: Lasarte-Oriari buruzko irudi ezberdin bat ateratzea, beti kirol argazkilaritzan aritzen naizelako. Egun pare batez ibili nintzen herrian barrera, kamerarekin.

**Kamerarekin egindako buelta horietako batean, Brunet Enea parkeko kioskoak deitu zizun arreta.** Igande arratsalde batean joan nintzen hara, gutxi falta zen ilunabarrerako. Gure herrian ez daude toki asko egunaren une hori garbi ikusteko; mendiaren eta kioskoaren artean argi ona sartzen zela ikusi nuen eta eguzkia sartu aurreko ordu erdian jolasten ibili nintzen, argazkia



Agustin Valdivia alkatea eta Ion Zugasti, sari banaketa ekitaldian. ISAAC FARRE

nondik atera erabakitzeke. Txukun geratu zen.

**Hurrengo urteko lehiaketan ere parte hartuko duzu?**

Denbora badut eta argazki txukunen bat ateratzen badut, bai, baina ez paisaia batena; aurten go irudi guztiak herriko toki desberdinetakoak izan dira. Lasarte-Oriako ekitaldi garrantzitsuren bateko irudiren batekin parte hartu nahiko nuke.

**Kirol argazkilaritzak ez du zerikusi handirik paisaienekin, ezta?**

Ez, baina egia da modalitate bat ikasi eta menperatuz gero bestean

aplika ditzakezula ikuspuntu eta teknikak. Detalle askoko irudiak izan ohi dira lasterketa eta beselako ekitaldietakoak, plano itxikoak, baina angelua zabalduz gero paisaia argazki ederrak atera daitezke kirolariek beraiekin. **Noiztik ateratzen dituzu argazkiak?** Duela hamabi bat urte edo. Kamera analogiko bat erabiltzen zuen aitzak gaztetan eta jubilatzen baino lehen digital bat erosi zuen, hori probatu eta argazkilaritzari buruz saltseatzen hasi nintzen: "Zergatik irudi hau enfokatuta dago eta bestea ez", eta horrela-

koak. Pixkanaka mundu horretan sartu nintzen eta kirol ekitaldietara joaten, lagun batzuek triatlotoak egiten zituztelako.

**Argazkilaritza ikastea, kontzeptu teorikoak barneratzea... funtsezkoa da, baina kamerarekin praktikatzea ere bai, ezta?**

Nahi duzun beste ikasi eta irakurri dezakezu, baina argazkiak egitea eta egitea, hori da ikasteko modua. Kamera hartu eta saltseatu, probak egin, teknikak probatu, *barrido* deritzona esate baterako. Gogoratzen dut irudi mota hori Zarautzen egin nuela, lasterketa batean. 700 partaide inguru zeuden eta lehenengoetan ez zitzaidan ongi atera, baina proba asko egiteko aukera izan nuen, nahi nuen argazki hori lortu arte (barreak).

**Nolakoa da 'barrido' teknikarekin ateratako argazki bat?**

Argazki mota bat da non abiadura mantsoa erabiltzen duzun zure aurrean mugitzen ari den horrek hondo desenfokatua eta abiadura efektua izan dezan.

**Milaka modu eta teknika erabili ditzake argazkilarik batek. Zein ari zara lantzen orain?**

Azkenaldian kameratik kanpoko flashekin ari naiz, argiztapen mota hori lantzen. Lasterketa gutxiagotara joaten naiz lana tarteko denbora gutxiago dudalako, eta, horren orde, argazki saioak egiten ari naiz lagun batzuekin. Horri lotuta, Denian (Valentzia) izan naiz duela gutxi eta mundu mailako kirol argazkilaritza lehiaketa bateko sari bat irabazi dut, kanpoko flash batekin igerilari bati Oiartzungo piszina egindako erretratu batekin. Soroslea handik zebilen eta berari eskatu genion laguntza, flasha eusteko! Nik egindakoa alderatzen nuen beste argazkilarik batzuen lanarekin, Australian

izan zela bat surflari batzuk argazkitzen, beste bat Cabo Verden... Nire barrurako pentsatu nuen, 'Niri ez diezadela galdetu' (barreak).

Argazkiak egitea erronka bezala hartzen dut eta buruan irudi bat ikusten badut, hori aurrera eramaten saiatzen naiz.

**Zer ematen dizu kiroletako argazkiak egiteak, eta, oro har, argazkilaritzak?**

Errutinatik ateratzea. Lasterketa batera joaten naiz eta ez dakit zerekin egingo dudan topo: eguraldia, non kokatuko naizen... Aste horretan hasten naiz horretan pentsatzen, erronkak jartzen nire buruari argazki hobeak ateratzeko, eta abar. Etengabe ikasketa bat da eta gustatzen zait. Horrez gain, laguntzen ditoki eta pertsona berriak ezagutzen, nire betiko ingurutik ateratzen. Plan politak dira.

**Esan duzu kirol proba jakin batean egingo dituzun argazkietan pentsatzen hasten zarela hori jokatu den astean bertan. Zein da kirol argazkilarik baten itzaleko lana?**

Hasteko, akreditazioa eskatu behar duzu lehenago, datuak eman eta antolatzaileak konbentzitu, baimena eman diezazuten. Gero, ibilbidea aztertu eta baita probaren nondik norakoak ere, bakoitzak bere izaera propioa duelako. Hori islatzea erronka da. Nire ustez, kontua ez da kurba bat aukeratu eta argazki guztiak handik egitea. Kirolari, antolatzaile eta boluntarioak pertsonak ere badira eta lasterketen barruan istorio asko daude kontatzeko.

**Zein da agendan apuntatuta duzun hurrengo hitzordua?**

Urte hasieran bertan Elgoibarko krosera joango naiz. Lokatza badago, hobe, ikusgarriagoak direlako argazkiak.

GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA

**Ana**

PELUQUERIA DE CABALLEROS

✓ Higienea bermatua

**HITZORDUA HARTU!**  
943-84 19 72  
672 71 72 06

Gabon zoriontsuak!

Kale Nagusia, 2 Lasarte-Oria

TEJIDOS FERNANDEZ

**Fernández**  
ehunak

Eguberri eta 2024 zoriontsua opa dizuegu!

*Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!*

Kale Nagusia 2 - Tel. 943-36 16 07 - LASARTE-ORIA

Ongi igaro Eguberriak!!

**AZ PEITIA**

Blas de Lezo, 1  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 18 70  
Fax: 943-36 21 79  
mueblesazpeitia@gmail.com  
www.mueblesazpeitia.com



# Mugitzearen garrantziaz ohartarazteko liburua

'Puro movimiento' lana ondu du Izaskun San Aniceto lasarteoriatarak, bizitza estilo "aktiboago eta osasuntsuago" bat bultzatzeko helburuz. Hiru zatitan banatu du lana: marko teorikoa, artikulazioak lantzeko ariketa praktikoak eta luzaketak

## Iñigo Gonzalez Sarobe

"Sedentariismoa da gizartearen arazo larrienetako bat; mugimendu falta". Argi hitz egiten du Izaskun San Aniceto herritarak, *Puro movimiento* liburuaren egileak (Dashbook argitaletxea). Txikitatik "oso pertsona aktiboa" izaki, mugimendua izan da bere bizitza estiloa. Horretan formatu da eta irakasle gisa dihardu gaur egun, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatu ostean.

Hamaika saltsatan sartuta egon ohi da beti eta horri osasuna, mugikortasuna eta elastizitateari buruzko liburu bat idaztea gehitu dio. Iruditzen zaio alor



'Puro movimiento' liburuaren azala eta egilea. IZASKUN SAN ANICETO

horiek, bizitza estilo aktibo eta mugituago bat eramatearena batez ere, "gutxietsita" daudela gaur egungo gizartean, eta fokuan jarri nahi du, adin guztietako pertsonentzat baliagarria izan daitekeen erreminta bat jarrita haien eskura.

## Hiru atal

Hiru atal ditu *Puro movimiento*-k: lehenengoa, marko teorikoa, irakurtzen duenak oinarri anatomiko batzuk eta kontestu bat barnera ditzan; bigarrena, ariketa praktikoena, artikulazio desberdinak lantzeko (sorbaldak, belauak, orkatilak, eta abar); eta, hirugarrena, giharren luzaketei buruzkoa, aurreko lanketa bezain garrantzitsua dena egilearen iritziz. "Mugikortasuna eta elastizitatea ez dira gauza bera, baina biak landu behar dira, izan ere, giharrak gero eta elastikoago, orduan eta hobeto egingo dute haien lana artikulazioek".

San Anicetok azpimarratu du bi faktorek eragiten dutela mugikortasuna galtzen: adina da bat eta praktika eza bestea, ariketa falta. Bere liburuan, esan bezala, ariketa, kontzeptu eta argibide

ugari topatuko dituzte testu, ilustrazio eta argazkien bidez. Pertsona bakoitzak bere errealitate, gaitasuna eta egoera fisikora doitu dezake egin beharrekoa, goi mailako kirolari ala ariketarik egiten ez duen norbait izan.

## Urtarrilaren 21a

Liburua eskuratzeko informazio gehiago behealdeko QR kodea eskaneatuta topatuko dute irakurleek. San Anicetoren proiektuak aurrera egin dezan ehun ale erreserbatu behar dituzte urtarrilaren 21a baino lehen. "Dashbook argitaletxeak crowdfunding estiloko dinamika batekin funtzionatzen du; aurrez ezarritako kopuruetara iritsi ezean, eskaera egin dutenei dirua itzuliko die".


"Gogoz eta ilusioz" ari da lanean egitasmo horretan San Aniceto. "Bizitza estilo aktiboago eta osasuntsuagoa bultzatu nahi dut, mugimenduaren bidez".



# XIXUKO, MARI DOMINGI ETA OLENTZERO BADATOZ!

Abenduak 24, Lasarte-Oria

- 11:00/ Herriko ikastetxeen Eguberrietako kalejira
- 12:00/ KALEJIRA Loidibarren frontoitik Xixuko, Mari Domingi, Olentzero eta Porrotxekin.
- 12:30/ IKUSKIZUNA Okendo plazan
- 13:00-15:00/ Mari Domingi eta Olentzerorekin egoteko aukera Mertzero gunean





# Lescun, erreken toki bat baino askoz gehiago

Ostadar SKTko Mendi sailak Juan Mari Ansa mendizalea gonbidatu du Antonio Mercero aretora, berriki argitaratu duen 'El circo de Lescun. Unas montañas de ensueño' lanaz hitz egitera. Azken hamabi urteak igaro ditu liburu eta ikus-entzunezko bana ontzen

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Mendizale amorratua izaki, ez da harrizkoa Juan Mari Ansa hobe moldatzea distantzia luzeetan esprint laburretan baino. Bere lan egiteko modua atletismoarekin alderatu du: "Batzuk gai dira liburu bat urtebetean idazteko, baina ni ez, asko estresatzen naitzela eta ez dudalako emaitzarekin gustura bukatzen. Urteen joan-etorriarekin zure burua eta erritmoa ezagutzen dituzu: Eliud Kipchoge maratoilariari 100 metroak egiteko eskatzen badiozu, azkenetakoa geratuko da, eta, Usain Bolt-ek 42 kilometroko lasterketa bat egin behar badu azkar abiatuko da, baina hirugarren kilometrorako erretiratu".

Edonola ere, argi du erritmo lasai hori eraman dezakeela beste lanbide eta iturri ekonomiko batekin uztartu ahal izan duela zeregin hau, Historia eta Geografia irakasle izan baita 35 urtez Donostiako Larramendi ikastetxean. "Nire ogibide bakarra mendiko liburuak idaztea balitz, ez nuke horrenbesteko patxada izango". Edizio txiki bat atera du eta ale horiek saltzetik poltsikora eraman dezakeenak ez du arduratzen. "Gozatzeko hartzen dut lan hori guztia, gauzak egiteko ilusioa dudalako. Autore batek esaten zuen moduan,



Juan Mari Ansa, ikus-entzuleei azalpenak ematen. TXINTXARRI

preziosa da gauza bat egiten inbertitzen duzun bizitza kopurua".

## Hamabi urtetako lana

Gauzak horrela, azken hamabi urteak igaro ditu *El circo de Lescun. Unas montañas de ensueño* lana ontzen, presarik gabe eta egindako bidez gozatzen. "Horrelako proiektu luzeek badituzte gauza onak, adibidez, detaile askoz gehiago sar ditzakezula eta lan sakonagoak egin". Hori da Ansaren liburuaren berezitasunetako bat, izan ere, mapa eta argazki ikusgarriez gain,

Frantzia dagoen herriari eta inguruko mendi txundigarriari (*Pirinioetako Dolomitak* ezizenez ezagunak dira baita ere, Italia iparraldeko gailur horiekin duten antzagatik) buruzko kondaira eta istorio mordo bat bildu ditu. Esate baterako, Lescun hitzak zer esan nahi duen: "Neolitiko garaiko transhumante tribuen hizkuntza euskararen antzekoa zen, eta *Lats-gun* deitzen zioten eremu horri, erreka edo latsen tokia alegia". Udalerririk horrek, beraz, badu nolabaiteko antza Lasarte-Oriarekin, Lasar-

te izena *lats arte*-tik baitator, erreka artean dagoen eremu bati erreferentzia eginda.

Lescungo zirkua 64 gailurrek osatzen dute. Acherito, Anie, Ansabere edota Pic des Trois Rois dira nabarmenetako batzuk. Mendiek eta haien gailurrek istorio harrigarriak gordetzen dituzte, baina baita beste eremu batzuek ere, Le Chemmin de la Mature delakoak esaterako. Arrokaren barruan dagoen igarobide bat da, gaur egun mendizaleek igarotzen dutena baina XVIII. mendean bestelako funtzio bat zuena: Frantziako garaiko gobernuak, inguruko basoetan ontzietako mastak egiteko egur bikaina zegoela eta, horiek ustiatzea erabaki zuen, eta, tokiko orografia nolakoa zen ikusita, Le Chemmin de la Maturen bertan pasabide bat eraikitzea agindu, zur hori Piriñoetatik Baionara eramateko.

## "Lehenbailehen" joatea hobe

Ikus-entzunezkoa proiektatu aurretik, honakoa iragarri du Ansa: "Lescun ezagutzen ez duzuenoi joateko gogo sartuko zaizue irudiak ikusi eta gero". Hogei minutu geroago konbentzitutak zeuden Antonio Mercero bertaratutako guztiak. Ildo horretatik, mendizaleak ohartarazi die hobe dutela "ahalik eta azkarren" joatea bertara, eremu hori orain bezain ongi kontserbatuta dagoen artean. "Etorkezuna ez da batere itxaropentsua: 1.800 biztanle izatera iritsi ziren eta gaur egun 170 lagun inguru bizi dira, horietako gehienak adinekoak". Beste toki askotan gertatzen ari den moduan, exodoa nabarmen ari da eragiten Frantziako udalerririk horretan. Beste adibide bat: 1950ean 47 artzainek lan egiten zuten han, eta, gaur egun, bederatzik besterik ez. "Ikuspuntu egoista ba-

tetik begiratzen diogu guk Lescuni, bertara joan, inguruaz gozatu eta zirkua osatzen duten mendietako bat edo batzuk igo, eta alde egin. Baina zer gertatzen da urte osoan bertan bizi behar dutenekin?".

Lescunen etorkizunarentzat "giltzarri" izan zitekeen proiektu bat aztertu zuten udalerriko biztanleek 1964an, Ansa jakinarazi duenez: eski estazio bat eraikitzea. Baiezkoaren eta ezezkoaren aldeko botoak oso paretsuak zirenez, alkateak erabaki behar izan zuen, kalitatezko boza erabilita. Ezetz esan zuen.

## Santa Barbaratik, mundura

Ostadar SKTko Mendi sailko kide Alex Tetuanek aurkeztu du gonbidatua. "Gazte hasi zen mendian Juan Mari, Santa Barbaran aurrena, Euskal Herriko mendietan gero eta izan zuen baita ere espedizionario garaia, munduko gailur ugaritara joan eta maila izugarri altuko igoerak eginda".

Mendiko literatura idazten makina bat urte daramatza eta liburuak argitaratzen hasi aurretik artikulua eta errelato ugari idatzi zituen. Ez nolana hikoak: zortzi aldiz irabazi du Pirenaicako Literatur Txapelketa. *El circo de Lescun* idazten hasi aurreko bederatzita urteetan erreferentziazko beste lan bat ondu zuen, *Las Mallos de Aralar. Itinerarios, historias y leyendas*. "Artikulu bat izan behar zuena liburu bilakatu zen, eta, oraingoa, alderantzizko bidea egin dut".

**LESCUNGO ZIRKUKO MENDIAK 'PIRINIOETAKO DOLOMITAK' EZIZENEZ EZAGUTZEN DITUZTE**

Eguberri on!



**Gabonetako eskaintzak ditugu! ZATOZI!**

EDALONTZIDUN IRABIAGAILUA

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

600 85 75 86

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)



ESKUKO IRABIAGAILUA



ILE LEHORGAILUA



UR POLTSA TERMICO



ESPRESSO KAFE-MAKINA (kapsula eta kafearekin)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



# Ostadar eta Realeko beteranoak, aurrez aurre

Ostadar SKTren 40. urteurrenari agur esateko neurketa berezia antolatu du kirol elkarteak abenduaren 30ean, 11:30ean, Michelin kirol gunean. Fran Toquero (Ostadar) eta Gorka Brit (Real Sociedad) herritarra izango dira aurrez aurre eta biekin solastu gara



Ostadarreko jokalariek osatutako argazki erraldoia. OSTADAR SKT

## Txintxarri

Ostadar SKTk aurten 40 urte ospatu ditu. Urtean zehar, hainbat jarduera eraman ditu aurrera, ekaina hasieran atal guztietako kirolariak bildu zituen eta argazki erraldoia egin zuen, esate baterako. Orain, urteurreneko ospakizunei amaiera paregabea emateko ekimen berezia antolatu du; beterano mailako

Ostadar eta Real Sociedad taldeen arteko partida jokatu da. Hitzordua hilaren 30ean izango da, 11:30ean, Michelin kirol gunean.

Talde urdin-beltzeko zein txuri-urdineko garai ezberdinetako jokalariek berriro ere zelaian ikusteko aukera paregabea izango da.

Ez hori bakarrik, neurketa hasi baino lehen, Ostadarrek "etxeko kide bati" omenaldia egingo dio.

Jose Manuel Loyarte *Gorrik* kirol elkartearen esker ona jasoko du, 11:15ak aldera. Kirol taldeko kideek adierazi dutenez, "40 urte horietan lan eskarga handia egin du. Aurten entrenatzaile lanak utzi ditu eta merezitako omenaldia izango da".

## Zozketak, atsedendian

Jaialdia biribiltzeko, ikusleek ere sariak eskuratzeko aukera izango

dutela aurreratu dute kirol elkarte kideek. Babesleek eskainitako produktuen zozketa egingo da eta, hala nola, Kairosen bi gosari, Realaren kamiseta, saski bat edo Berasategi kafeak-eko poltsa bat irabazi ahal izango dira. Kirol elkarteak salgai jarriko ditu txartelak par-

tida hasieran eta bere sare sozialetan zein bulegoan argitaratuko ditu zenbakiak.

Era berean, Ostadarrek eskerrik eman nahi dizkie eure babesleei "beti laguntzeagatik eta, batez ere, egun horretan parte hartzeagatik".

## "Botak berriro janztea, oso ideia polita iruditu zitzaidan"

FRAN TOQUERO ALVAREZ OSTADARREKO BETERANOA

2014 urtean arte, 20 urtez Ostadarreko atea zaintzen aritu zen Fran Toquero (Lasarte-Oria, 1986) eta hilaren 30ean, berriro ere, Michelin kirol gunean makilen azpian jokatu da.

Ostadarreko kide batek neurketaren berri eman eta ilusioz hartu zuen deia: "Berriro botak janztea, taldekide ohiekin batu, emozio hori sentitzea eta gainera Realaren aurka, oso ideia polita iruditu zitzaidan".



TXINTXARRI

Talde urdin-beltzeko belaunaldi ezberdinetako kideek osatu dute beterano taldea eta gehienekin zelaian jokatu dela onartu du atezainak: "Polita izango da, jubenil nintzean taldeko

zaharrenekin jokatu nintzen eta futbola utzi nuenean gaztetxoekin".

Hala ere, entrenamendu saioak egitea erraza izan ez dela adierazi du: "Guztiok ditugu gure egin beharrekoak. Zelaiarekin ere gorabeherak izan ditugu; Loiolako Erriberetan bildu behar izan gara orain arte. Horrez gain, ez min hartzeko ere adi ibili beharko gara. Dagoeneko badugu baja bat".

Oztopoak oztopo neurketaz eta futbolaz gozatzea helburu dutela nabarmendu du: "guretzat eta Michelinera gerturatzeko direnentzat oroimenean mantentzeko eguna izan dadila espero dugu".

## "Neurketa polita izango da; kide ohien aurka arituko naiz"

GORKA BRIT GALLEGO REALEKO BETERANOA

Nahiz eta Osasunan egin debuta lehen mailan, Gorka Brit (Lasarte-Oria, 1978) aurrelaria Real Sociadareko harrobian ondu zen jokalaria modura. Horregatik, 2016az geroztik, herritarra beterano mailako taldearekin ari da lanean eta Tomas Orbegozo, Michael Loinaz, Luis Perez, Diaz de Cerio, Lopez Rekarte, Miguel Fuentes edo Xabi Prieto



JAVI ELOLA



jokalariekin jokatu ohi da herritarra.

Betarano taldea Realaren lehen zein bigarren taldean jokatuak 35-65 urte bitarteko kidek osatzen

dute eta astean behin biltzen dira entrenatzeko.

Urteurren berezi edo elkartean neurketak, torneoak... partida ezberdinetara joan ohi da beterano mailako taldea. "Eskaera dena delakoa, jokalarietako batzuk kudeaketa lanak egiten dituzte eta guztia antolatzen dute," aipatu du Britek.

Aurrelariarentzat neurketa berezia izango da gainera Realean futboleko hasi bazen ere, Ostadar SKTn amaitu zuen bere ibilbidea: "Neurketa polita izango da. Herrian eta harremana dudan taldekideen ohien aurka arituko bainaiz".


# MAITE

ESTETIKA ARETOA

Eguberri eta urte berri on!

zerbitzu mistoak

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pultsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina



Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria





Irudi honetan ageri dira aurtengo ikastaroan parte hartu duten ikasleak, lone Artola irakaslea ondoan dutela. TXINTXARRI

# Oraina eta etorkizuna du tradizioak Lasarte-Orian

Zortzi ikaslek osatu dute Euskal Jantzi Tradizionalen aurtengo taldea. Horien guztien artean, gainera, ikastaroak inoiz izan duen parte hartzailerik gazteena aritu da: Aizpea Barcina Etxebeste. Lan ederrak osatu dituzte, denek ala denek, aurtun ere

## Txintxarri

Amaitu berri da Euskal Jantzi Tradizionalen aurtengo ikastaroa. Bi hilabetez oihalak moztu, josi eta beste hainbat lanetan aritu dira joskintza saioetan parte hartu duten herritarrek. Txalekoak, amantalak, jakak, gonak, eta beste zenbait pieza sortu eta eraberritzeko lanetan aritu dira parte hartzaileak, eta denek ala denek, lan "bikainak" egin dituzte. Hala nabarmendu du taldea gidatzeaz arduratu den irakasle Ione Artolak. Urte mordo daramatza ardurara horretan, eta, aurtengo ikastaldiaz galdetuta, azaldu du urtero bezala "oso gustura" aritu dela. "Oso talde jatorra" osatu dutela ere azpimarratu du, eta guztiek egindako lanarekin "oso pozik" agertu da: "Ikastaroan urtez urte parte hartzen dutenek izugarriko aurrerapenak egin dituzte, eta berriek egindakoa ere ederra izan da".

Aurtengo taldeak, gainera, kide berezi bat izan du: Aizpea Barcina Etxebeste. 11 urteko lasarteoriatar gaztea. Inoiz ikastaroak izan duen ikaslerik gazteena izan dela azaldu du Artolak eta hori "zirrargarria" izan da berarentzat: "Titare ikastaro iraunkorrean ezagutu genuen elkar, eta ikasle oso saiatua zela ikusita, eta joskintza gustuko duenez, jantzi tradizionalen saioetan parte hartzea animatu genuen. Izugarri poztan

nau harrobia badela ikusteak; ilusio handia egin dit bere parte hartzeak".

## Joskintzaren "harrobia"

Bere ama Ane Etxebestek parte hartzen zuen Titare joskintza ikastaroko eskola batera joan zen Aizpea alaba. Bisita egin, eta zein lanetan ari zen ikustera bertaratu zen, eta, orduz geroztik, bera ere izan da joskintza taldekide: "Gustatu zitzaidan ama eta beste taldekideak egiten ari zirena, eta bertan parte hartzeko aukera eskaini zidaten. Hortik etorri da Euskal Jantzi Tradizionalen ikastaroan aritzeko aukera".

Amonak eskuz jositako azpiko gonaren eta orain arte erabili duen amantalaren itxura berritze lanak egin ditu ikastaroak iraun bitartean.

Azpiko gonak, adibidez, luzera gehiago du orain, eta baita zabaltasun handiagoa ere. Gainera, "lorza" ize-neko tolesturak ere egin dizkio, eta amonak jarritako puntillari ere erantsi dio beste zati bat. Amantalarerkin ere antzeko; oihal zati berriak gehitu dizkio luzatzeko, eta apaingarri gisa. Nabarmendu du "oso gustura" aritu dela lan horietan, eta taldekideek "ondo" hartu dutela. Irakasleari buruz galdetuta, azpimarratu du "txukuna" dela, eta beti dagoela "laguntzeko prest".

Orain, amaitu da Euskal Jantzi Tradizionalen ikastaroa, baina urte berriarekin batera hasiko da Titare, eta, lekurik lortzen badu, behintzat, bertan arituko dela aurreratu du gazteak, gogoz.



Aizpea Barcina Etxebeste itxura berritu dituen jantziak eskuetan dituela. TXINTXARRI



Irudiotan, aurtengo ikasleek egindako jantziak. TXINTXARRI



# KOMERTZIO TXIKI

## HERRI HANDI

### LASARTE-ORIA

# GREMIOAK



## BARNE-DISEINUA

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
  - HORMA-ARMAIRUAK
  - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)



## ITURGINTZA

**ELOLA**  
ITURGINTZA

ITURGINTZA | GASA BEROKUNTZA | ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Galdara, berogailu eta termo ordezkapenak

Tel: 608 76 00 06  
[elolaiturgintza@gmail.com](mailto:elolaiturgintza@gmail.com)  
LASARTE-ORIA



## IGELTSERITZA

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



## ELEKTRIZITATEA

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)



## KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

**ANORGA TXIKI S.L**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943-37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

31. urteurrena  
**ISU**

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK  
Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Kale Nagusia, 46 behea.  
LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala  
USURBIL



## ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?

PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66



# Gabonak



## ALdea dago!

Erreparatu ongi bi irudiei, eta markatu bien artean dauden aldeak. 20 dira guztira.

### SUDOKUA

A			E
		R	
	E		
O			

Bete hutsuneak, EROA hitza osatzen duten hizkiak (E, R, O, eta A) dagokien tokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

## Gabonetako dominoa

Osatu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan.



## Itzala

Zein da izeiaren itzal zuzena?





# Gabonak

## Handienetik txikienera

Ordena itzazu iratxo hauek handienetik txikienera, eta 1etik 9ra hurrenez hurren. Bide batez, margo itzazu denak.




## Irudi engainagarriak

Zenbatuta dauden zatitxo hauen artetik erdiak iruditik hartuta daude, eta beste erdiak engainagarriak dira. Bereiz itzazu.


## Labirintoa

Katagorriak Maridomingirenganaino iritsi behar du, fruitu asko baititu saskian. Sekuentziari jarraituz, mugitu laukiz lauki, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean. Bide batez, lauki bakoitzeko hizkiak agertu ahala idatzi behean, eta esatera zahar bat osatuko duzu.






## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



## Arkaitz

Arkaitz, zorionak aita eta familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu. 23 muxu handi.



## Ainhoa

Erdi sorgin erdi lami, lanean kantu kantari, ipurmasailak dantzari. ZU ZARA MARI DOMINGI! Zorionak Ttakuneko lankideon partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

## Internet

· txintxarri.eus/  
zorionagurra.  
· Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.  
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

## Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 22	DE MIGUEL
LARUNBATA, 23	LASA
IGANDEA, 24	LASA
ASTELEHENA, 25	LASA
ASTEARTEA, 26	GIL
ASTEAZKENA, 27	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 28	URBISTONDO
OSTIRALA, 29	DE ORUE
LARUNBATA, 30	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 31	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 1	GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 2	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 3	LASA
OSTEGUNA, 4	GIL
OSTIRALA, 5	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 6	LASA
IGANDEA, 7	LASA
ASTELEHENA, 8	URBISTONDO
ASTEARTEA, 9	GANDARIAS-URIBE
ASTEAZKENA, 10	DE ORUE
OSTEGUNA, 11	DE MIGUEL

## Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00  
Abenduaren 31a arte

K. Aizpuru Odriozola:

Latxumbe Berri 11, Hernani.  
943-33 60 77

## Urtarrilaren 1etik aurrera

Florida Farmacia:

Mañe I Flaquer Plaza 6, Hernani.  
943-57 64 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## OHARRAK

## Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entseatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen (Oriarte Landaberri eraikinean) biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

## Animatu, trikitilari!

Trikitixa eta panderoari hautsak atera eta kaleak alaitzeko gogoz bazaude, hilaren 24an duzu aukera. 11:00etan, Okendotik hasita, kantu eskean ibiliko gara Landaberri eta Sasoetako ikasleekin, eta, 12:00etatik aurrera, kalejiran, Olentzero eta Mari Domingirekin. Animatu, trikitilari! Harremanetarako: 655 91 34 55 (Lierni).

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

## Ostirala, 22



## Larunbata, 23



## Igandea, 24



## Astlehena, 25



## Asteartea, 26



## Asteazkena, 27



## Osteguna, 28



## SUDOKUA

	5		3	6			9	
			8	4		7	6	
			2				5	
1					3	8		
	8					5	1	6
	7	9				2		
6	3	5						
2		7	5					3
			1	3	7			5

Sudoku10.net

## ESKUTITZA

## Udalari eskaera eta kexa

G.A.

Hotzak eta goseak daudenak noiz arte itxaron ote dezakete? Nola demontre eskuratu behar da hozkailua jartzeko.

Zein zikoitzak zareten.

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.



# Gabonak

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

### GARAJEA

#### ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldean deitu hona: 650 63 65 88.

### LANA

#### ESKAINITZA

Lanaldi erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

### ESKARIA

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketara...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

### BESTELAKOAK

#### SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

**Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan**

txintxarri@ttakun.eus  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## ESKELA



### Aitziber Ugartemendia Zubeldia

Gozatu dugu lagun arteaz ondo hil artean bizitza dantzatuz ero zu lasai bazaude, lasai dago oro zerbait izango dela dakigu gero.

Ta jarraituko dugu elkar zaintzen bizipen guztiak ondo oroitzen ai Aitziber zein ederra haizen hirekin gora gaitun etortzen



BETIKOAK BETIRAKO

# Sari ederrak irabazi dituzte bazkideek

Ttakun Kultur Elkartek zenbait zozketa egin ditu azaroan eta abenduan. Irabazleak Garbiñe Martiarena, Ana Sanchez, Oiana Aizpurua eta Olaia Holgado izan dira. Zorionak denoi!



TXINTXARRI



TXINTXARRI



TXINTXARRI



TXINTXARRI



## ESKUTITZA

### BOROBILEAN ELKARTEA

## Aitziber Ugartemendia Zubeldia gogoan

Gaixotasunaren kontrako borroka luze eta kementsu baten ondoren, Aitziber Ugartemendia Zubeldia lagun eta elkartekidea joan zaigu. Horren aurrean, lehenengo eta bat, Boroblean Elkartek bere dolumin sentikorrena adierazi nahi die bere senide eta ingurukoei.

Boroblean ertz bat galdu dugu gaur, bere berezkoa eta errepikazina zen koordinatu bat galdu dugu. Ezen, gaixotasunak ezin izan dio eragotzi Aitziberri Boroblean Elkartearen bultzatzaile eta sortzailetako bat izatea. Bataila hori irabazita joan zara, konpai. Adorez eta maitasunez, zure urteetan irabazi dituzun beste bataila asko bezala. Izan ere, zure urteak ez dira debaldekoak izan, ez horixe: otarrean kargatuta utzi diguzun fruitu pila dugu horren froga. Aitziberri zor diogu, adibidez, gure Elkartearen izena, Boroblean; berak ikusi zuen boroblean jarrita zela elkarri entzuteko, elkarrekin hitz egiteko, hausnartzeko eta amesteko geometriarik egokiena. Jarrerarik onena.

Aitziberren hutsunea sentituko dugu, zalantzarik ez, baina ez gara hutsik sentituko, Boroblean ederki baitakigu hutsak zer esan nahi duen. Hutsa espazio inmateriala da, Aitziber orain den moduan, komunitatearen espazioa. Denon artean, Aitziber barne, sortutako komunitatearen espazioa; guk eta gure aurrekoek ere bai, eta aurrekoen aurrekoek... Euskaraz eta euskaratik, herritik eta herriarekin definitzen eta egikaritzen den komunitate horretan Aitziberren arrastoa egongo da beti.

Adiorik ez, konpai! Eta, zoaz lasai, ez dizugu hutsik egingo.





## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 22

## LASARTE-ORIA Jaia

Herriko haurrek Eguberrietako Haur Parkeaz gozatuko dute. Hilaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da eta hilaren 24an nahiz 31n eta urtarrilaren 5ean goizez bakarrik irekiko dute. Helduek euro bat ordaindu beharko dute sartzeko. *Michelin kirol gunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.*

## LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikak beste mobilizazio bat antolatu du Palestinaren alde; manifestazioa egingo dute, herrian barrena. *Okendo plazatik abiatuta, 19:00etan.*

## LASARTE-ORIA Musika

Gabonetako emanaldia aurrera eramango du Alboka Abesbatzak. Sarrera doakoa da. *Brigitarren komentua, 19:30ean.*

## LARUNBATA 23

## LASARTE-ORIA Musika

Jon Maia bertsolariak *Kantu berri bat gara* zuzeneko emanaldi bat eskainiko du goi mailako zenbait musikarirekin batera. Sarrerek 14 euro balio dute. *Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.*



## LASARTE-ORIA Jaia

Aurten, goizez bisitatuko dituzte lasarteoriatarrek Olentzerok eta Mari Domingik. Haurren gutunak jasotzen hasi aurretik, herriko ikastetxeetako ikasleak kantu eskean ibiliko dira erdigunean barrena, 11:00etatik aurrera. Loidibarrenen amaituko dute ibilbidea, eta 12:00etan bertatik abiatuko den Mari Domingi, Olentzero eta lagunen kalejirarekin bat egingo dute. Kale Nagusitik barrena Tajamar biribilguneraino joan eta handik Okendo plazara iritsiko dira, 12:30etik aurrera ikuskizun koloretsua eskainiko dute Porrotx pailazoarekin batera.

*Hilaren 24an, Loidibarren pilotalekutik, 12:00etan.*

## OSTEGUNA 28

## LASARTE-ORIA Musika

New Orleans Gospel Quartet New Orleans Gospel Quartet laukoteak gospel kontzertua emango du. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan izango da hori, eta antolatzaileek iragarri dutenez, sarrerek 14 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

## OSTIRALA 29

## LASARTE-ORIA Zinema

*El chico y la garza* filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxean nahiz Kutxabank Sarrerek atari digitalean eros daitezke. *Kultur etxea, 20:00etan.*

## IG. 31- URT. 1


## LASARTE-ORIA Musika

Urtea bukatu eta datorrena giro ederrean hasteko aukera izango dute herritarrek, Oihan Vega DJaren eskutik. Haurrentzako saioa 19:00etatik 20:30era artekoa izango da, hilaren 31n, eta, gazteena, 01:00etatik 04:00etara bitartekoa, urtarrilaren 1ean. Sarrera doakoa dela nabarmendu dute antolatzaileek. *Andatza plaza, 19:00etatik 20:30era eta 01:00etatik 04:00etara.*

## URTARRILAK 5

## LASARTE-ORIA Jaia

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Lasarte-Orian izango dira. Goizean Atsokakar egoitzako egoiliarrek bisitatuko dituzte, eta, bitartean, herriko haurren eskutitzak jasoko dituzte euren postariek, Okendo plazan. Arratsaldean, aldiz, desfilea egingo dute herriko kaleetan barrena. *Herriko zenbait lekutan, goizez eta arratsaldez.*



## URTARRILAK 11

## LASARTE-ORIA Ekitaldia

Harresi Guztien Gainetik egitasmoko kideek XIII. Errezitaldia aurrera eramango dute. Formatua "berezia" izango dela iragarri dute, besteak beste, lehen aldia delako preso politiko lasarteoriatar guztiak inguruko espetxeetan daudena, Zaballan eta Martutenen, hain zuzen. Sarrera doakoa izango da. *Kultur etxea, 19:00etan.*

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

## FUTBOLA

## BETERANO MAILA

Ostadar SKT - Real Sociedad SAD  
Abenduak 30. 11:30. Michelin kirol gunean.

## OHOREZKO ERREGIONALA

Hernani CD B - Ostadar SKT  
Larunbata. 16:00. Zubipe, Hernanin.

## GORENGOEN MAILA

Axular Lizeoa - Ostadar SKT  
Larunbata. 18:15. Puio, Donostian.

## OHOREZKO JUBENILA

Ostadar SKT - Martutene KE  
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

## OHOREZKO KADETEA

Lengokoak SD - Ostadar SKT  
Larunbata. 12:50. Cesar Benito, Donostian.

## INFANTIL HANDI, KOPA

Ostadar SKT - Astigarragako  
Mundarro FKE  
Larunbata. 15:45. Michelin kirol gunean.

## INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA

Ostadar SKT - Eibar SAD  
Larunbata. 12:35. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN I. MAILA,  
TXAPELDUNEN FASEA

Arrupe Chaminate CDDF B - Texas  
Lasartearra CF

Larunbata. 13:40. Felix Garin, Donostian.

INFANTILEN I. MAILA,  
UDABERRIKO KOPA

Ostadar SKT - Kostkas Mariaren  
Bihotza CD C

Larunbata. 11:00. Michelin kirol gunean.

## ARETO FUTBOLA

## I. MAILA

Eguzki Arkupe Rehab. - Euskalduna SD  
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

## III. MAILA

Makax AFKK - Eguzki ISU Leihoak  
Igandea. 11:00. Altza kirol., Donostian.

## GAZTEEN MAILA

Zarautz Gran Camping - Eguzki B. Ayasa  
Larunbata. 14:00. Aritzabalde kirol., Zarautzen.

## KADETE MAILA

Ingou Mondrate - Eguzki G. Goxua  
Igandea. 09:15. Iturripe kirol., Arrasaten.

## INFANTIL MAILA

Laskorain ikastola - Eguzki B. La Escalerilla  
Larunbata. 10:30. Usabal kirol., Tolosan.

## GABONETAKO TXAPELKETA

Benjamin, alebin eta infantil mailako  
Gabonetako txapelketa jokatu da.  
Ab. 26-30 eta Urt. 3-7. Michelin kirolgunean  
eta Maialen Chourraut kiroldegian.

## SASKIBALOIA

## 3X3 TXAPELKETA

Benjamin, alebin, infantil eta kadete  
mailako 3x3 txapelketa lehiatu da.  
Ab. 30. Goiza. Maialen Chourraut kiroldegian.

## IGERIKETA

## NEGUKO LIGA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior  
eta absolutu mailako igerilariek  
Neguko Ligako jardunaldiari egingo  
diote aurre.

Larunbata. 09:30. Usabal kirol., Tolosan.

## PACO SANCHEZ SARIA

Buruntzaldea IKTKo alebin eta  
benjaminek 23. Paco Sanchez  
Sarian parte hartuko dute.  
Larunbata. 15:30. Usabal kirol., Tolosan.

## ATLETISMOA

## PROBA LIBREAK

Ostadar SKTKo zein herriko atletak  
proba libreetako saioak dituzte.  
Ostirala eta Ab. 29. Antonio Elorza belodromoa,  
Donostian.

## LASTERKETAK

## SAN SILVESTREA

Lasarte-Oriako VII. San Silvestre  
lasterketa jokatu da.  
Ab.31. 12:30. Lasarte-Orian.





# LUIS CAR

## autobusak

2024 zoriontsua opa dizuegu!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza, 1 LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • [luiscarbus62@hotmail.com](mailto:luiscarbus62@hotmail.com)

# Maitte

# B ETELU



*Ondo pasa eguberrietan!*



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • [www.mbetelu.com](http://www.mbetelu.com)



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

TITANIOZKO INPLANTEETAN PROMOZIO BERRIA  
URTARRILAREN 31RA ARTE



ELGOIBAR · LASARTE-ORIA · TOLOSA

943-36 63 77